

San Juan suetarako segurtasun-gomendioak

Sua egin aurretik kontuan hartzekoak

- Edozein **eraikin, ibilgailu edo landaredi altutatik** urrun kokatu sua. Gutxienez, sutarako egur-piloaren altuera baino 5 aldiz urrunago.
- **Argindarraren aireko lineetatik** edo telefono kabletatik urrun jarri sua.
- Sutarako piloak ezin du izan **4 metro** baino gehiago bere dimentsioetariko baten ere ez.
- Garbi eduki pilaketaren ingurua: ez dadila egon inolako erregairik, belarrik, sasirik, paperik nahiz ehunik sua heda dezakeenik.
- Saiatu aurreko egunetan pilaketarik ez egiten; ez behintzat sua piztu baino **72 ordu lehenagora arte**.
- Zorua asfaltozkoa bada, edo kaltetu daitezkeen baldosak badira, hareazko edo lurrezko geruza bat jarri, gutxienez 10 cm-koa.
- Kontuan hartu **haizearen norakoa eta indarra**. Haizeak indarrez eta kontrara jotzen badu, baliteke sua bertan behera utzi beharra izatea eta premiagabeko arriskurik gabe gozatu gauaz.

Sua piztuta dagoen bitartean hartu beharreko neurriak

- **Sua pizteko**, papera, lasto lehorra eta ezpalak erabili bakarrik, edo barbakoetarako pastillak.
- Ez erabili likido sukoirik: alkohola, kerosenoa, gasolina edo disolbatzaileak.
- Ez jarri edo bota piroteknia-objekturik sutara edo haren inguruan. Ez bota sutara inolako esprai, poto, ontzi, zabor ezta plastikorik ere, ke toxikoak sor baititzakete.
- Ez jarri paperik edo oihalik egur-piloaren kanpoaldean, suak berak sor ditzakeen korronteez eraman baititzakete.
- **Pertsona heldu bat** egon dadila beti sua gainbegiratzeko.
- Mangera bat, sua jotzekoak edo su-itzalgailu bat izan beti inguruan, badaezpada.
- Jaia bukatzean edo sua iraungitzean, egiaztatu ez dela geratzen txingarririk edo hausberorik haizeak eraman dezakeenik, eta, horretarako, urarekin itzali eta hoztu edo hareaz zein lurraz estali.

Baten bat ustekabeaz errez gero

- Uraz busti berehala azala erre den partea, tarte luze batean (15 minutuz).
- Hasieran, ez jarri pomadarik ez desinfektagarririk.
- Erredura sakona edo zabala bada, deitu SOS Deiak **112** zerbitzura, eta eraman zauritua osasun-zentro batera, erretako aldea airean utzita edo serum-etan bustitako gaza esteril batez estalita.

